

aLeKa

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2021 otsaila

04
GIZARTE BABESA
Protección social

08-09
TOLOSATZEN
Aportaciones ciudadanas

10-13
AZKEN BERRIAK
Actualidad tolosarra

15
AGENDA
¿Qué quieres hacer?



2021. URTERAKO AURREKONTUAK

*Unos presupuestos en respuesta
a las necesidades actuales* _____ 02^{or.}

EGUNGO EGOERARI ERANTZUTEKO AURREKONTUAK

Bizi dugun ezohiko egoerari aurre egiten jarraitzeko aurrekontua onartu du Tolosako Udalak 2021erako.

Guztira 27.037.040 euroko aurrekontua da, iaz baino % 1,24 baxuagoa. Suspertu Tolosa Planaren jarraipena izango da; hortaz, 2020ko lehentasunak eta ardatzak mantenduko dira: herritarren gizarte babesa bermatzea, hiri ekonomia suspertzea eta kultura babestea eta komunitatea sendotzea. Baina baita ere tolosarrontzat estrategikoak diren proiektuetan urratsak egitea.

Helburu nagusia da zaugarritasun egoeran dauden eta egoerak gehien kaltetu dituen herritarrak zein sektoreak laguntzen eta babesten jarraitzea. Horretarako, aurrekontu osoaren ia % 40 bideratuko da herritarren arlora eta inbertsio soziala % 9 igoko da, guztira ia 3 milioi euroko aurrekontuarekin.

El Ayuntamiento de Tolosa ha aprobado un presupuesto para 2021 que tiene como objetivo seguir haciendo frente a las consecuencias derivadas de la Covid. Se trata de un presupuesto total de 27.037.040 euros, un 1,24 % menos que el año pasado. Será una continuación del Plan Suspertu, por lo que se mantendrán las prioridades y los ejes establecidos: garantizar la protección social de la ciudadanía, reactivar la economía urbana y proteger la cultura y fortalecer la comunidad. Así como avanzar en los proyectos estratégicos.

El objetivo principal es seguir apoyando a la población en situación de vulnerabilidad y a los sectores más afectados por la situación actual. Para ello, se destinará casi el 40 % del presupuesto total al área de ciudadanía y la inversión social se incrementará un 9 %, con un presupuesto total de casi 3 millones de euros.

Aurrekontuaren banaketa



Helburuak Objetivos

- GIZARTE BABESA BERMATU**
 Zaugarritasun egoeran dauden eta behar bereziak dituzten tolosarrei laguntza eta babesa ematea, pertsona ororen gizarte babesa bermatzeko.
Ayudar y proteger a las personas en situación de vulnerabilidad para garantizar el bienestar y la protección social de todas y todos los tolosarras.
- HIRI EKONOMIA SUSPERTU**
 Egungo egoerak gehien kaltetu dituen sektoreak babestu eta elkarlanean neurri eta egitasmo berriak martxan jartzea.
Apoyar a los sectores más afectados por la situación actual y poner en marcha nuevas medidas y proyectos trabajando de forma conjunta.
- KULTURA BABESTU ETA KOMUNITATEA SENDOTU**
 Gure herri izaerari eta nortasunari eusteko, kultur eragileen lana babestu, kultur jarduera bultzatu eta komunitatea sendotzeko ekimenak sustatu.
Apoyar el trabajo de todas y todos los agentes culturales, impulsar la actividad cultural y promover iniciativas que fortalezcan la comunidad para mantener nuestra identidad y carácter.
- ETORKIZU-NEKO TOLOSAREN OINARRIAK LANDU**
 Tolosarrontzat estrategikoak diren proiektuetan aurrerapausoak eman Tolosaren garapen sozial, ekonomiko eta jasangarria sustatzeko.
Avanzar en los proyectos estratégicos para Tolosa a fin de promover su desarrollo social, económico y sostenible.

+
%9
INBERTSIO
SOZIALA

— 1 —
*Gizarte
babesa*
—



Inbertsio soziala nagusi izango da aurten, eta % 9ko igoera izango du, kohesio sozialaren, integrazioaren, berdintasunaren eta tolosar guztien ongizatearen aldeko apustuan, herritar zaugarrienen beharrei erantzuteko.

El presupuesto más social
de los últimos años

Hainbat lerro eta programa indartu egingo dira dira:

LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK
247.520 € (iaz baino **82.000 € gehiago**)

DIRULAGUNTZAK FAMILIEI
180.000 € (iaz baino **70.000 € gehiago**)

FAMILIA ESKUHARTZEA ETA
GAZTEEKIN PROGRAMA
322.217 € (iaz baino **40.000 € gehiago**)

ALOKAIRU ORDAINKETA ERRAZTEKO
DIRULAGUNTZA (BERRIA)
40.000 €

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
935.000 € (iaz baino **40.000 € gehiago**)

ZUTANI TALDEARI DIRULAGUNTZA
ELIKAGAI BANKUKO BANAKETA OSATZEKO
12.000 € (iaz baino **3.000 € gehiago**)

A los proyectos de ámbito social se destinará un presupuesto de casi 3 millones de euros, un 9% más que el año pasado

— 2 —
Hiri ekonomiaren suspertzea
—



Nuevas medidas y bonos de consumo para reactivar el comercio y la hostelería local

4

langabeturen kontratazioa.

Lanbideren bidez, Gazte Planaren barruan 30 urte azpiko bi pertona kontratatuko dira, eta eskualdeko Enplegu Planaren baitan beste bi.

Lehiakortasuna.

15.000 euro bideratuko dira tokiko enpresen lehiakortasuna sustatzera.

Tokiko merkataritza eta ostalaritza /
Comercio y hostelería local.

- 120.000 euroko balioa duten bono jarriko dira martxan eta Tolosa&Co elkartearekin hitzarmena berrituko da: 40.000 €-ko laguntza emango zaio, iaz baino **10.000 € gehiago**.
- Merkataritza lokalak berritzeko eta alokairurako laguntzak emango dira, **70.000 €-ko** inbertsioa eginez.
- Saltokien eskualdaketa bermatzen jarraituko da. **35.700 €** bideratuko dira "Berriz enpresa" programara.

Azoka Lagunak proiektua indartuko da (50.000 €).



50.000 €

PARA REALIZAR ACCIONES
QUE FORTALEZCAN EL
MERCADO DE LOS SÁBADOS

Kultura eta komunitatea



El Ayuntamiento seguirá impulsando este 2021 la actividad cultural y el trabajo de las y los artistas locales

Kultur programazioa.

Kultur jarduera sustatzen jarraitu eta herriko talde eta artisten lana babesteko, kultur programazioa bere osotasunean mantenduko da.

Kultur eskaintzaren azterketa. Orain arteko kultur jarduerak aztertu eta egitasmo berriak jarriko dira martxan.

Tolosatzen Eskola Irekia. Ikasturte berria martxan da, trebakuntza soziala, sendotze soziokomunitarioa eta elkar ezagutza sustatzeko.

Tolosatzen Aliantza. Tolosatzen herri aliantza abiarazi da urtarrilean. Hila-betero keinu txikiak proposatuko dira gai nagusi baten inguruan komunitatea indartzeko eta hobetzeko.

Gobernantzako ordenantza berria. Gobernantza eredu berrietan sakontzeko eta partaidetza sustatzeko gobernantzako ordenantza berria garatuko da.

Trabajar de forma comunitaria y reforzar la comunidad será prioritario, por lo que se impulsará la gobernanza colaborativa a través del proyecto Tolosatzen y la nueva Ordenanza de Transparencia y Gobernanza



Etorkizuneko proiektuei ere bide emanaz



Legealdi Planean aurreikusitako hainbat proiektutan aurrerapausoak emango dira eta 2020an gauzatu ezin izan ziren hainbat obrari hasiera emango zaie.

- Laskoain kaleko obra.
- Kultur Etxeko proiektua, liburutegi berria bertan kokatzeko.
- Gernikako Arbolaren 2. faseko obrak.
- Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua.
- Euskal Herria plazako zoruaren eraberritzea.
- Zumarditxikia berreskuratzeko proiektua.
- Genero indarkeriaren aurkako II. Protokoloa.
- Gorriti plazaren eraberritzea.
- Eguzki plaken instalazioa udal eraikinetan.
- Usabal 3. Fasea: Pumptrak espazioa.
- Alokairua sustatzeko etxebizitza hutsak birgaitzeko dirulaguntzak.
- Dirulaguntzak jasangarritasun energetikorako.
- Larramendiko biribilgunearen egonkortzea.
- Bizikleta aparkaleku berria.
- Led argiak.
- Hiribus elektrikoa.



Se avanzará en los proyectos estratégicos recogidos en el Plan de Legislatura y se dará comienzo a algunas de las obras que no se pudieron ejecutar en 2020

HERRITARREN PROPOSAMENAK AURREKONTU PROIEKTUAN JASOTA



G

uztion Artean Tolosaten prozesuan tolosarrek egindako hainbat proposamen 2021eko udal aurrekontuaren txostenean bildu dira. Ekarpene guztiak sailez sail aztertu dira eta Tolosako Udalak martxan dituen lan lerro eta proiektuetan lerrokatu dira.

Oso prozesu aberasgarria izan da, herritarrengandik jasotako proposamenak egungo paradigman kokatutako elkarlan publiko-komunitarioaren baitan egindako hausnarketatik eratorri baitira.

Ongizatea, ekonomia, komunitatea, partaidetza edo jasangarritasun gaiei lotutako proposamenak jaso dira, eta herritarren ekarpenei erantzuteko

Herritarren proposamenei erantzunez zaintzaren inguruko proiektua garatuko da, Azoka Lagunak indartu, elkarteen katalogoa sortu eta garapen jasangarrirako helburuak zehaztu Agenda 2030aren baitan



Varias de las propuestas realizadas por las y los tolosarras en el proceso Guztion Artean Tolosaten han sido recogidas en el proyecto de presupuestos 2021 y en el dossier sobre los presupuestos.

Todas las aportaciones han sido analizadas por los departamentos y se han alineado con las líneas de trabajo y los proyectos recogidos en el Plan de Legislatura del Ayuntamiento.

Se han recogido propuestas relacionadas con el cuidado de las personas, los productos locales, el medio ambiente y las asociaciones locales.



tolosatzen

Partaidetza prozesuen urteko plangintza

Planificación de los procesos participativos para este año

- **Tolosaldeko Emakumeen Etxea** errealitate izateko II. parte hartze prozesua.
- **Liburutegi berria** herritarrei zuzendutako espazioaren dinamikak eta erabilerak lantzeko saioak.
- **Herriko merkataritza txikia** babesteko eta bultzatzeko ordenantza berria.
- **Partaidetza eta informazioa** erregulatze-ko Gardentasun eta Gobernantzako Ordenantza.
- **Haur, nerabe eta gazteen diagnostikoa eta plana** garatzea bizi duten egoeraren argazki orokor bat eraikitzeke.



- **Haurren ongizate fisiko eta emozionala** bultzatzeko Eskolabideak proiektua.
- **Ikastetxeetako ekintza** edota proiektuen elkar-sorkuntza prozesua DBH 12-15 urteko gazteekin, gurasoekin eta irakasleekin elkarlanean.
- **Landa eremuko auzoen** etorkizuna aztertzea plan estrategikoak garatzeko.
- **Zaintzaileen formazio-beharren** inguruko ebaluazioa.
- **Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia** eragileekin batera berdintasunaren aldeko sinergiak indartzeko.



Aurrekontuen txostena ikusgai eta eskuragarri dago udalaren webgunean

Consulta y descarga el dossier sobre los presupuestos en la página web del Ayuntamiento



www.tolosa.eus



AZKEN BERRIAK

Actualidad

HAINBAT HAUR JOLASTOKI KONPONDUKO DIRA AURTEN

Tolosan dauden haur jolastokiak konpontzen hasi da Udala zorua berrituko da batzuetan eta beste batzuetan jolasak edo horien kokapenak, jolaserako espazio egoki eta seguruak eskaintzeko.

Armeria plaza, Larramendi, Zuloaga, Amaiur, Bizkai, Agaramundu, Alliri, Larramendi 3 eta Larramendi 7ko haur jolastokiak eraberrituko dira lehen fasean, guztira bederatz.

2021ean ekingo zaio bigarren faseari

OSPITALE BERRIA KOKATZEKO 4 EREMU AUKERA HOBERENEN ARTEAN

Eskualdeko ospitalea kokatzeko 13 eremu aztertu dira eta horietatik 4 dira egokienak eta bideragarrienak: *San Blas, Usabal, Santa Lutzia* eta *Iurramendi*. Besteak beste, ingurugiroa, irisgarritasuna, bideragarritasuna, mugikortasuna, lur zatien ezaugarriak, eraikigarritasuna eta aparkalekua hartu dira kontuan aukeraketa egiteko. Orain Udalak 2. faseari ekingo dio 4 eremu horien azterketa sakonagoa eta zehatzagoa egiteko, behin betiko kokapena zehazte aldera.

Se han analizado 13 áreas para la posible ubicación del hospital comarcal, de las cuales el estudio ha determinado como las más adecuadas y viables: San Blas, Usabal, Santa Lutzia e Iurramendi. Ahora el Ayuntamiento va a iniciar la 2ª fase para realizar un estudio en detalle de estas 4 zonas con el fin de determinar su ubicación definitiva

San Blas, Usabal, Santa Lutzia e Iurramendi, las opciones más viables y adecuadas para la construcción del hospital comarcal




BERRIKUNTZAK BIDE AZPIEGITURETAN

Ugariak dira azken hilabeteetan Tolosako hainbat gunetan egiten ari diren berrikuntza lanak eta obrak. Honakoak dira horietako batzuk: Laskoain kaleko lanak, Larramendiko biribilgunea, edo herriko hainbat puntutan egin diren asfaltatze lanak.

Mejoras en viales

Son varias las obras iniciadas o realizadas en el municipio con el objetivo de mejorar el espacio público.



“ZILARREZKO HARIA” LAGUNTZA ZERBITZUA

Bakarrik dauden pertsona nagusiei telefonoz laguntzeko doako zerbitzua da. 900 713 771 telefonora deituta eskaintzen da laguntza, eta deiak anonimoak eta konfidentzialak dira.

2020an Adinkide programa ere abiarazi zen, aurrez aurreko laguntza zerbitzua, adiskidetasun harremanen bidez bakar-

dade egoeran dauden adineko pertsonen ongizatea hobetzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren familia bitartekaritza zerbitzua ere herritarren eskura dago Familia Elkargunean. Astelehenero eskaintzen da zerbitzua bertan. Bertara jotzeko hitzordua hartu behar da aurrez.

Se refuerza el servicio de acompañamiento "hilo de plata"

Es un servicio gratuito de ayuda telefónica para personas mayores que se encuentran en situación de soledad. La ayuda se ofrece llamando al teléfono 900 713 771. Las llamadas son anónimas y confidenciales.

Asimismo, en 2020 se puso en marcha el programa Adinkide, un servicio de ayuda presencial para mejorar el bienestar de las personas mayores a través de relaciones de amistad.

Desde hace unos meses también se ofrece el servicio de mediación familiar en el punto de encuentro familiar (Escuela de Música). El servicio se ofrece todos los lunes. Es necesario solicitar cita previa.



ZUMARDITXIKIKO ETA KULTUR ETXEKO PROIEKTUAK IDAZTEKO PROZESUAK MARTXAN



Legealdi Planean jasotako bi proiektu garrantzitsu hauen idazketa prozesuak abiarazi ditu Udalak. Zumarditxikia herritarren eskura jartzea da Udal Gobernuaren legealdirako helburu nagusia eta proiektu estrategikoena.

Espazio publiko honen berrantolaketa egin nahi da, leku honek zuen erabilera soziala berreskuratzeko, baina gaur egungo beharretara egokituta eta Tolosa-ko Mugikortasun plana kontuan hartuta.

Berdegune bat sortu nahi da, espazio naturalagoa, inklusiboagoa, irisgarriagoa, herritar bakoitzaren naturarekiko harremana areagotuko duena eta gizarte ekintzak antolatzen laguntza izango dena.

Proiektuak duen garrantziagatik, lanketa egiterakoan herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da. Horregatik, bi saio egingo dira tolosarrekin, bata proposamenak jasotzeko eta, bestea, proiektua aurkezteko.

Liburutegi berria Kultur Etxean

Herriko eraikin sozio-kulturaleri buruzko azterketa egin zuen Udalak aurreko legealdian, eraikin bakoitzean eskaintzen ziren zerbitzuak hobetu ahal izateko.



Azterketa amaituta, kultur etxea eraberritzeko proiektuari eman zaio lehentasuna, gune honen erabilergatik eta duen erreferentzialtasunagatik.

Kultur etxea zaharkituta eta gain-okupatua dago eta ez ditu irisgarritasun baldintzak bermatzen. Beste espazio batzuetan ere antzeko arazoak daude, esaterako Aranburu jauregiko artxiboan eta liburutegian; horregatik, eraberritze proiektuarekin kultur etxean erabilera berriak planteatu nahi dira. Eraikinen azterketa egiterakoan herritarrengandik jasotako eskariari erantzunez, liburutegi berria bertan kokatuko da.

En marcha las licitaciones para la redacción de los proyectos de Zumarditxiki y la Casa de Cultura

El Ayuntamiento ha puesto en marcha los procesos de redacción de estos dos importantes proyectos recogidos en el Plan de Legislatura. Poner Zumarditxiki a disposición de la ciudadanía es el principal objetivo y el proyecto más estratégico de la legislatura. Se trata de crear una zona verde, un espacio más natural, inclusivo, accesible, que incremente la relación con la naturaleza de cada tolosarra y sea apto para organizar actividades sociales.

La nueva biblioteca en la Casa de Cultura

La Casa de Cultura está obsoleta y sobreocupada y no cumple las condiciones de accesibilidad. En otros espacios también hay problemas similares, como en el archivo y la biblioteca así, con el proyecto de reforma se pretenden plantear nuevos usos para la Casa de Cultura. En respuesta a las propuestas de la ciudadanía a la hora de realizar el estudio de los edificios en la pasada legislatura, la nueva biblioteca se ubicará en la Casa de Cultura.

Herritarren parte hartzearekin garatuko dira bi proiektuak

GARDENTASUN ETA GOBERNANTZAKO ORDENANTZA

Partaidetzaren eta gardentasunaren kultura Tolosan errotzeko eta sustatzeko, gobernantza eta gardentasun ordenantza garatuko da uztailera bitartean. Herritarren parte hartzearekin egingo da, haien ahotsa kontuan hartuko duen gobernantza eredu berriak Udalaren eguneroko jardunean txertatzeko.

Ordenantza berria herritarren partaidetza artikulatuko duen dokumentua izango da, eta udalerriko herritarren eskubide sozialak bilduko ditu; arautegi honen lan ildo berritzaileenetarikoa bat elkarlan publiko-komunitarioa garatzeko espazio berrien sorrera izango da.

Se desarrollará la Ordenanza de Gobernanza y Transparencia para consolidar y fomentar la cultura de la participación, la transparencia y la gobernanza colaborativa

Martxora bitartean udal barruan egingo da lanketa, eta martxotik apirilera herriko elkarteekin, foro egonkorreko erakundeekin eta norbanako edo herritar antolatu gabeekin. Bileretan jasotako ekarpenak aztertuta, oinarritzko dokumentuan txertatuko dira gero, behin betiko arautegia idazteko.

Una de las líneas de trabajo más innovadoras de esta normativa será la creación de nuevos espacios para la colaboración público-comunitaria.




EMOZIOEN GIMNASIOA

Tolosatzen Eskola Irekiaren barruan bigarren egitaraua aurkeztu berri da. Egitaraua hiru epealditan banatuko da, eta otsailtik apirilera bitartean emozioek izango dute indar handiena. Horretarako, Emozioen Gimnasioa tailer zikloa antolatu da, otsailaren 17tik aurrera egingo dena.

Helburu hauek izango ditu: arlo emozionalaren garrantziaz ohartzea, garunaren funtzionamendua ulertzea, norbere emozioak zein besteen emozioak identifikatzea, norbere emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea, ongizate pertsonal eta sozialerako bizi-trebetasunak garatzea eta pertsonen arteko harremanak hobetzea.

La programación del segundo curso de la Escuela Abierta Tolosatzen se centrará en las emociones. Se impartirá un ciclo de talleres entre febrero y abril



TRIBUNA

Alderdien iritzia



Elkarlana ezinbestekoa

Pertsonak eta beren beharrak erdiguneko kokatuz, ezohiko egoerari aurre egiten jarraitzeko aurrekontu proiektua garatu dugu.

Inoizko aurrekonturik sozialean egin ditugu tolosarren ongizatea eta gizarte babesa bermatzeko eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen eta sektore kaltetuenen beharrei erantzuteko. Baina baita ere jardura ekonomikoa suspertzeko, tolosarrentzat estrategikoak diren proiektuak ahaztu gabe.

Eta iaz bezala, egitasmo eta proiektuak sektore guztiekin, eragileekin eta herritarrekin elkarlanean garatuko ditugu, gainerako erakundeekin koordinatuta, tolosarrei erantzunik egokiena emateko.

Egoerak lankidetzaz ezinbestekoa egiten duelako, herritarren nahia delako eta elkarlana gure izaeraren eta lan ereduaren parte delako.

“Unos presupuestos sociales, adaptados al contexto actual, en respuesta a las necesidades de las y los tolosarras y los sectores más afectados por la crisis sanitaria para seguir afrontando las consecuencias derivadas del Covid19 en colaboración y coordinación con agentes, sectores e instituciones poniendo a disposición de la ciudadanía todos los recursos disponibles”



Errealitateak erakusten duen bezala, hasi berri den urtea ere ez da batere xamurra izango. 2020ko ildotik, EH Bildutik legegaldi honetarako eragile eta herritarrekin osatutako programa oinarri izanik, egoerara egokitu eta Tolosaren momentuko beharrei erantzuteko lanketan sakontzen ari gara 2021ean.

Bide horretan, udal aurrekontuak osatzeko eta aberasteko saiakerari eutsiko diogu, beste behin gobernuari akordiorako eskua luzatuta, azken urtean egin dugun bezala.

Orain arte neurri zehatzak proposatu ditugu aipatutako ondorioei aurre egiteko: diru-laguntzak, aholkularitza eta mikroredituak merkataritza, ostalaritza eta autonomoei; auzoz auzoko formatu txikiko kultur emanaldi eta ekimenak programatzea; lehen sektorea indartzea eta elikadura burujabetza bultzatzea; pobrezia aurre egitea; auzoetako inbertsioak bertako bizilagunekin adostea; etxebizitzaren gaiari erantzun integrala ematea; energia berriztagarriak sustatzea, zaintza eta lan/familia kontziliaziorako diru-laguntzak sortzea; eta berdintasun arloa sendotzea.

Bide beretik jarraituko dugu, tolosarren eskutik lan egiten, eta argi dago pandemiaren ondorio sozioekonomikoei aurre egitea izango dela gure lehentasuna 2021ean ere. **Elkarlanean jarduteko unea da. Argi dugu hori eta horretan saiatuko gara, orain artean bezalaxe proposamenak mahai gainean jartzen.**



Covid 19k eragindako krisiari erantzutea izan da Tolosako PSE.EE erantzunkizun bakarra aurrekontuetan.

La Covid 19 nos exige poner todo nuestro esfuerzo en prestar ayuda a las personas y a los sectores de Tolosa más afectados por la grave situación social, económica y sanitaria. Hemos priorizado la protección social y la reactivación económica.

La inversión social ha aumentado un 9%, con un montante de casi tres millones. Se refuerzan ayudas de Emergencia Social, con 82.000 euros más que el año pasado; las ayudas a familias con 70.000 más; en programas de Intervención familiar y con jóvenes se destinan 322.217; subvención a la asociación Zutani/banco de alimentos con 12.000.

Kontuan ere izan dira ondoko proiektu estrategikoak: Zumarditxikia, Kultur Etxeko proiektua, Emakumeen Etxearen obra eta Gorriti plazaren berronratzea. 2021eko aurrekontuak ez dira ikuspegi alderdikoiarekin egin izan. Ziur gaude Tolosarentzat egin zitezkeen aurrekonturik onenak hauek direla.

AGENDA

Tolosako giroa berpizteko garaia da!

OTSAILAK 17 Euskal Barrokenseble
19:00etan, Leidorren

OTSAILAK 24 Iñar Sastre - Jaboga Astiazaran: Arineketan
19:00etan, Leidorren

OTSAILAK 26 Tartean Teatra: Ez dok ero
19:00etan, Leidorren

MARTXOAK 05 Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)
19:00etan, Leidorren

MARTXOAK 12 Xabier Leteri Omenaldia: Loreak eta Zauria
19:00etan, Leidorren

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

*Beharrezkoak diren prebentzio eta segurtasun neurri guztiak hartuko dira ekitaldi guztietan.

JARRAITU KULTURAZ GOZATZEN

KONTSULTATU
AGENDA OSOA
HEMEN

AGENDA.TOLOSA.EUS



#BABESTUKULTURA

#BABESTUTOLOSA



Antonio Maria Labaien kultur etxea
Trianguloa, 1
T: 943 67 03 88
kultura@tolosa.eus

Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera:
09:00-22:00
Ostiraletan: 09:00-20:00

